

Ekai Txapartegi

FILOSOFIAN DOKTOREA

ETAri arrazoi ematea

Normala da ETAri arrazoa ematea, baldin badu. Espainian, ordea, bekatua da hori, heresia ia. Ez genuke egin behar, beraz. Baina natural ateratzen zaigu.

Guk natural egiten duguna zeharo okertzat hartzeko espainiarrek duten joera harroaren ondorioz euskaldunon bizitzan sarri asko errepikatzen da tentsio berbera. Oraingotan, gainera, tentsioa mingarriagoa da, lege mailara igo baita astakeria. Lege antiterrorista delakoak zigortu egin dezake ETArekin bat etortzea. Behartzen gaituzte ETAri arrazoirik ez ematera. Indarrez behartu ere, mehatxu zuzenaren bitartez.

ETAri arrazoi emateagatik zigortu gaitzakete baina ezingo digute gaizki ari garenik sinestara. Horrek agerian lagatzen du berriz ere euskaldunon behin-behineko egoera. Zein herrik iraun dezake modu naturalean eta arrazoa erabiliz egiten dituenak zigortzen dituen konstituzio baten menpean? Herriak halabeharrez legeria aldatzera joko du. Gutxienez, badugu esperientzia zabala pentsatzeko euskaldunok gure jokabide naturaletan jarraituko dugula temati, soldaduskari muzin egiten genionean bezala, ez gara espainiarrak esaten dugunean bezala... ETArekin bat etortzen jarraituko dugu, hala iruditzen bazaigu.



EGOTIZ LASA

ETAri ezin zaiola arrazoirik eman, legea ez ezik, joko politikoko "argudioa" ere bihurtu da. Zenbat aldiz ez ote dugu entzun euskaldunak ezin garaela autodeterminatu hori ETAri arrazoa ematea delako? PPK sartu zuen iruzur dialektiko hori, PSOEk beso zabalik hartzeko. Ondoren, pozoia bera erabiliz, Josu Jon Imaz jeltzalea abertzaleak zornatzen saiatu da (*El País*ek horretarako jarritako pulpitutik). Ondorioz, eztabaida ez da euskaldunoi autodeterminazioa dagokigun. Eztabaida da noiz ematen diogun arrazoi gutxiago ETAri autodeterminazioa onartzean ala ukatzean. Jatorrizko eztabaida ez zaienez komeni, kartak aldatu dizkigute. Eztabaida ez da politikoa, erlijiosoa baizik. Heresia da ausia, autodeterminazioa heretikoa ote den eztabaida dezagun nahi dute.

Eta horrek baditu arrisku nabariak. Haiek ezartzen dute ETAri arrazoi ematea zer den. Haiek markatzen dute heresia zer den, hemen zer egin eta esan daitekeen. Hortaz, "argudio" hori euskaldunon edozein eskakizun ukatzeko erabiltzen da: independentzia, autodeterminazioa, euskararen sustapena, eskal nazioaren existentzia, presoen gerturatzea, torturaren abolizioa edo dena delakoa. Ezin dugu halako txeki zuririk eman. ETArekin bat etorritz gero, euriak euri... eutsi geureari. ■

« Zenbat aldiz ez ote dugu entzun

euskaldunak ezin garaela

autodeterminatu hori ETAri arrazoa

ematea delako? PPK sartu zuen

iruzur dialektiko hori,

PSOEk beso zabalik hartzeko



TXANDAN

Juan Ramon Makuso

Sofia maitea



Horrela idazten du Jostein Gaarder-ek bere eleberrri ospetsuko pasarte batean. Sofia, noski, eleberriko protagonistaren izena da. Eta eleberririk horren muina filosofiaren historiaren moduko zerbait izatea da. Filosofia hitzaren esanahia, denoi, gure nerabe aroan, esaten zitzaigun jakinduriaren maitasuna zela. Noski, maite-maite, nerabetasunean, beste gauzez maitemintzen gara. Jakinduria ez zen sartzan nire eskemetan, behintzat ikuspegi klasikoan. Beste gauza bat zen, niretzat, jakin-mina, *kuriositatea* –Ur, maileguan hartzen dizut hitza–. Ez nuen erlazionatzen barruan

nuen arra jakinduriarekin. Baina bai, urteak aurrera egin ahala, Aristoteles zaharrarekin topo egin nuen. Estagirakoak garbi utzi zidan gizakiak, izatez, jakin nahi duela. Eta kuriositatea edukitzeak, harribitxiekin topatzeko dakar. Egunkariak horretarako aproposak dira. Hartzen duzu gurean dagoen egunkarietako bat, eta telebistako kritika zutabearen honekin egiten duzu topo: ZDF alemaniar telebistako kate publikoan lasai aritzen omen dira *Laukote filosofiko* deituriko programa batean, hainbat filosofo, horien artean, Peter Sloterdijk. A ze pagotxa! Sofia maitea. Eta gu pozik Sautrelak 200 atal bete dituelako. ■